

ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNAREN APLIKAZIOA NAFARROAN

**Nafarroako Gobernuaren txosten osagarria V. ebaluazio-aldiaren
gainean (2014 - 2016)**

AURKIBIDEA

0. Sarrera
 1. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak Espainiak Gutuna aplikatzeaz eta haren betetze-mailaz
 2. Nafarroako Gobernuak 2017an eta 2018an hartutako neurri legal eta praktikoak
 3. Alderdi orokorrak
-

0. Sarrera

Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoak prestatu zuen “V. Aldizkako txostena (2014-2016), Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aplikazioaz Nafarroan”. Dokumentu hori 2017ko uztailaren 21ean igorri zuen Espainiako erresumako Lehendakartzako eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioko Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Entitateekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusira.

2017ko abenduan, Espainiako Estatuak “Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren Espainiako betetze-mailaren gaineko bosgarren txostena” igorri zuen Europako Kontseilura. Nafarroako Gobernuaren jardueraren gaineko informazioa prestatzeko, Euskarabideak 2017ko uztailaren 21ean igorritako txosteneko informazio ia gehiena bildu zen.

Txosten horrek barnean biltzen zituen, batetik, “Adituen Batzordearen IV. Ebaluazio Txosten”ean eskatutakoak (2015eko martxoaren 20an onetsia), eta, bestetik, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak Espainiak Gutuna aplikatzearen gaineko gomendioak (2016ko urtarrilaren 20an egin ziren).

Txosten osagarri honen xedea da, batetik, V. ebaluazioaren alderdirik azpimarragarrienak laburbiltzea, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak egindako gomendioei dagokienez, eta, bestetik, V. aldizkako txostena Nafarroako Gobernuak egin zuenetik gaur egun arte hartutako erabakiei buruzko argibideak ematea (2017ko erdialdean egin zuen Euskarabideak).

1. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak

Espainiak Gutuna aplikatzeaz eta haren betetze-mailaz

Nafarroari dagokionez, Ministroen Batzordeak 2005eko, 2008ko, 2012ko eta 2016ko hurrenez hurreneko ebaluazio-aldietan egindako gomendio orokorretatik aplikagarri zaionaz, gomendio horiek bereziki esparru hauek azpimarratzen dituzte:

- **Estatuko Administrazioaren mendeko zerbitzu publikoak: administrazioa eta zerbitzu publikoak** (Gutunaren 10. art.), oro har, eta aipamen berezia eginez **Justizia** esparruari (9. art.). Gomendatzen da neurri juridikoak eta praktikoak hartzea zerbitzuak euskaraz eskaintzeko eta euskara laneko hizkuntza moduan ezagutzen duten langileen kopuru egokia ziurtatzeko (2005, 2008, 2012 eta 2016).
- **Nafarroako Gobernuaren mendeko zerbitzu publikoak: administrazioa eta zerbitzu publikoak** (10. art.), oro har, eta aipamen berezia eginez **osasun laguntza** esparruari. Gomendatzen da neurriak hartzen jarraitzea eremu urriko hizkuntzaren presentzia bermatzeko eta hizkuntza hori dakiten langile kopuru egokia ziurtatzeko (2005, 2008, 2012 eta 2016).

Gomendio orokor horiez gainera, alderdi hauek ere aipatu dira Nafarroari egin zaizkion bi aipamen berezi hauetan:

- **Komunikabideak**, bereziki, irrati eta telebistako programak: euskararen erabilera sustatzea gomendatzen da (2005).
- **Eremu mistoa**: Gutunaren III. zatian (2005) euskara babesteko aurreikusitako neurriak aplikatzea gomendatzen da.

Ministroen Batzordeak IV. ebaluazio-aldian (2010 - 2013) egindako gomendioei zehazki dagokienez, haien betetze-maila taula honetan ageri da:

GOMENDIOAK	BETETZE-MAILA
<p><i>1. Esparru juridikoa aldatu behar da, argi uzteko autonomia erkidegoetako agintari judizial penal, zibil eta administratiboek prozedurak hizkuntza koofizialetan egin ditzaten, aldeetako edozeinek eskatuz gero.</i></p>	<p>Ez dugu ziurtasunik Estatuko eskumenaren esparru juridikoa aldatu dela esateko.</p>
<p><i>2. Beharrezkoak diren neurri juridikoak eta praktikoak hartzen joatea bermatzeko autonomia erkidegoetan destinoa duten epaitegietako langileen kopuru egokia behar diren hizkuntzetan lan egiteko gai izanen direla (Gutunaren 9. Artikulua aplikagarri izanen zaie).</i></p>	<p>Nafarroako Foru Komunitatean destinoa duten epaitegietako langileei dagokienez, ez dago langile elebidunen (gaztelania-euskara) proportzio egokirik. Langile horien eskumena Espainiako Estatuarena da. Itzultzailearen bat kenduta, ez dago epaitegietako langileen artean euskararen ezagutza duen lanposturik.</p> <p>Nafarroako Gobernuak bere gain dauzka Justiziako langile laguntzaileak. 80 lanpostu dira, Justizia Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen eta Baliabide Materialen Kudeaketarako Zerbitzuaren eta Justiziako Gizarte Zerbitzuaren mende daudenak. Gaur den egunean, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren Hizkuntza Ekintzako Plana prestatzen ari dira.</p> <p>Dokumentu honen 2. puntuan azaltzen den bezala, <i>Euskararen I. Plan Estrategikoaren (2016-2019) 3. ardatza</i> garatuz eta azaroaren 15eko 103/2017 FORU DEKRETUA betez, Euskarabideak Nafarroako Gobernu departamentuetako Hizkuntza Ekintzako Planak</p>

	<p>prestatzeari ekin zion. Justizia Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, zuzendaritza nagusi horretako teknikariek elkarlanean, Euskarabideak zuzendaritza horretako unitate administratiboak aztertu zituen 2018an eta, herritarrekiko harreman zuzenari dagokionez, bost unitateri lehentasuna eman zaie. Unitate horietan daude Justizia Zuzendaritza Nagusiko 80 lanpostutatik 34.</p> <p>Euskararen nahitatezko ezagutza esleitzeko proposamenak, Hizkuntza Ekintzako Planean dagoenak, bederatzi lanpostu ukitzen ditu: zerbitzu orokorretako langile bat (eskatutako ezagutza-maila: B1), administrari bat, gizarte-hezitzaile bat, hiru gizarte-langile eta hiru psikologo (horiei guztiei eskatutako ezagutza-maila: C1).</p> <p>Proposamena Justiziako zuzendari nagusi andreaki aurkeztu zaio eta haren onespeneren zain gaude.</p>
<p>3. <i>Beharrezko neurri juridikoak eta praktikoak hartzen joatea, Estatuko Administrazioan hizkuntza koofizialen presentzia egokia bermatzeko, autonomia erkidegoen esparruan.</i></p>	<p>Neurri juridikoei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2015eko urriaren 2koa): 15.2 artikuluan ezartzen du «autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, kasuan kasuko autonomia-legedian ezarritakoari lotuko zaiola hizkuntzaren erabilera». <p>Ez ditugu ezagutzen Estatuko Administrazioak artikuluko hori Nafarroan betetzeko hartu dituen neurri zehatzak.</p> <p>Euskara administrazioan erabiltzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 LEGEA arau honekin garatu du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 103/2017 FORU DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde

publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan. “Lankidetzazko Estatuko Administrazioarekin” izeneko arau horren bigarren xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da: **«Nafarroako Gobernua Estatuko Administrazioarekin elkarlanean arituko da, organo eskudunek neurriak har ditzaten Nafarroan egoitza duen Estatuko Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa gero eta handiagoa izan dadin**, Administrazio Publikoetako Ministerioaren 1990eko uztailaren 20ko Aginduan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera». Aurreikusita dago lankidetzazko hitzarmena berritzea, Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazioaren zerbitzura dauden langileei prestakuntza eman diezaien, hala eskatuz gero.

Neurri praktikoei dagokienez, zenbait adibidek erakusten dute gomendio hau ez dela ezarri:

- 2015ean, Nafarroako Arartekoak dokumentatu zuen Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko Salaketa Automatizatuak Tratatzekeko Zentroari egindako kexa, pertsona batekin hark aukeratutako hizkuntzan komunikaziorik ez ezartzeagatik. Trafikoaren eskumena Estatuarena da. Kexaren arrazoia ez da zuzendu eta, gaur egun, euskaraz komunikatzeko ezintasunak bere horretan dirau.
- Behin eta berriz kexak jaso dira **Nortasun-agiri Nazionala** ele biko formatuan ez emateagatik. Kexaren arrazoia ez da zuzendu eta, gaur egun, behin eta berriz eskatu bada ere, nafarrei –ezta euskara ofizialtzat hartuta dagoen eremu euskaldunekoei ere– ez zaie Nortasun-agiri Nazionala ele biko formatuan ematen

	<p>(bestela egiten da bi hizkuntza ofizial dituzten beste erkidego batzuetan).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estatuko Administrazio Nagusiaren webgunea (www.administracion.gob.es) gaztelaniaz dago eta ez du hizkuntzaz aldatzeko aukerarik ematen. Beraz, ez daude euskaraz inprimakien ereduak eta Erregistro Elektronikoa. - Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO, www.boe.es) ez dago euskaraz, zenbait atalen izenen erabilera testimonial bat izan ezik.
<p><i>4. Neurriak hartzen jarraitzea, hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko zerbitzu publikoetan, bereziki osasun laguntzakoetan;</i></p>	<p><i>Euskararen I. Plan Estrategikoak (2016-2019), Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 25ean onetsiak, helburuen artean</i> du Nafarroako administrazio publikoei gaitasuna ematea zerbitzuak euskaraz emateko, eta zerbitzu publikoetan euskarazko eskaintza handitzeko. Haren helburu espezifikoien eta ekintzen artean, aurreikusten du zerbitzu zentralak identifikatzea (Nafarroako herritar guztiak beren osotasunean hartzen dituztenak dira) eta ele biko zirkuituak ezartzea, lehenetsia emanez herritarrekin harreman handiena dutenei, hizkuntza hautatzeko eskubidea gauzatu dadin.</p> <p>Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak 6. artikuluan ezartzen duenez, «Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek eta beraiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateek behar diren planak prestatuko dituzte», Nafarroako Foru Administrazioan eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuetan euskararen erabilera posible egiteko.</p> <p>Departamentuek, Euskarabidearen aholkularitzaz, jadanik</p>

prest dituzte hizkuntza ekintzako planak eta haiek onesteko bidean daude.

Osasun Departamentuak ia 11.000 pertsona ditu plantillan eta horietako gehienak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua ente autonomoan. Departamentu honen konplexutasuna dela-eta, berriazko plana proposatu da, herritarrei osasun zerbitzuetan euskarazko arreta emateko.

Lehenik, zerbitzu orokorrenetako (osasun etxeak, adimen osasuneko zentroak, sexu eta ugalketa zentroak...) plantillaren azterketa orokorra egin da, lehen diagnostikoa izateko. Ele biko hizkuntza eskakizuna zuten 119 plaza zeuden, ezta plantillaren % 1 ere. Horietako gehienak eremu euskalduneko osasun etxeetan.

Jakitun izanik arlo konplexu batean maila honetako politika batek zerbitzuak zehaztu behar dituela, lehentasunezko zerbitzuak zein ziren zehaztu zen: harrera eta erregistroa, eremu euskalduneko osasun etxeak, eremu mistoko osasun zerbitzuak, lurralde osoko herritarrak hartzen dituzten zerbitzu zentralak... Helburua da herritarrei arreta euskaraz emateko zirkuituak osatzen joatea, ele biko lanpostuen definizioaren bidez.

Neurriak ezartzen ari dira, Osasun Departamentuan jadanik lanean ari diren pertsonen prestakuntza emanez (adibide moduan, 2019ko hasieran osasun langileendako hiru hilabeteko euskarazko ikastaro trinkoak egingen dira, lanetik liberatuta eta beste langile batzuek ordezkatuta eta lan publikoaren eskaintzak (LPEak) eginez:

Lan Publikoaren Eskaintza (LPE) NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA -OSASUNBIDEA	Plazak, guztira	Ele biko lanpostuak (euskara betebeharrak da)	Ele biko plazen ehunekoa, guztien artean
2017ko LPEa	219	3	% 1,37
LPEa: berritze-tasa	233	40	% 17,17
LPEa: egonkortzea	621	47	% 7,56

Guztira	1073	90	% 8,38
----------------	------	----	--------

Ele biko plazak gehitzen hasi ziren lan publikoaren eskaintzan. 2017an, lehen deialdi batean osasun mentaleko eta ginekologiako hiru erizain lanpostutarako deialdia egin zen. 2018an, 48 lanpostu zehaztu ziren: bederatzi mediku eta hiru peditra osasun etxeetarako; psikiatra ondoko bat eta psikologo kliniko bat osasun mentalerako; ospitaleetarako 25 erizain, bi zeladore eta sei teknikari laguntzaile. Urte berean beste 40 lanpostu zehaztu dira 2019ko eskaintzarako: medikuntza orokorreko eta larrialdietako bederatzi mediku, bi psikologo kliniko eta terapeuta bat osasun mentalerako, bi osasun hezitzaile, mediku odontologo bat eta zernahi zerbitzutarako hogeita bost erizain. Osasuneko langileez gainera, herrietako osasun etxe batzuetan administrari plazak definitu dira.

2018an, landa-lana egin da eremu euskalduneko eta Pirinioetako lehen laguntzako osasun etxeetan. Osasun etxeak bisitatu dira eta hango profesionalekin mintzatu gara. Inkesta bat egin da haien egoera eta beharrak zein diren jakiteko. Horren guztiaren ondorioz, abian jarri da euskararen oinarrizko ikaskuntzarako prestakuntza-programa bat, hiru hilabete bitartean lana utziz, eta ikastaro tekniko espezifikoak antolatu dira profesionalen komunikazio-beharretarako.


Sektorez sektoreko azterketak egiten segituko da. Hurrengo urratsa eremu mistoko osasun etxeak aztertzea izanen da, eskualdean euskaraz artatzeko zerbitzuak abian jartzeko. Hurrengo lanetan lehentasunezko beste zerbitzu batzuk aztertuko dira, hala nola osasun mentalekoak, sexu eta ugalketa osasunerakoak, kanpoko kontsulta orokorrak, ospitaleko laguntzakoak, etab.

Hizkuntza Jarduketarako Planaren zirriborroa oso aurreratuta dago eta Osasun Departamentuak laster onestea espero da.

2. Nafarroako Gobernuak 2017an eta 2018an hartutako neurri legal eta praktikoak

Nafarroako Gobernuak *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* 2017ko urtarrilaren 25ean onetsi zuen. Horixe da aipagarriena. Plana prestatu bitartean, hots, 2016an, lan sakon eta parte-hartzailea egin zen. Hasierako diagnostikoak dokumentu aberastu eta indartua ekarri zuen. Diagnostiko horretan Nafarroako erakunde publikoetako eta elkarteetako zernahi sentsibilitatetako ehundik gora pertsonak hartu zuen parte, gizarte nafarraren pluraltasunaren lekuko. Hasierako bertsioa Nafarroako lurralde-mapa osoko sei herritan aurkeztu eta alderatu zen bost saio sektorialetan. Gainera, jendaurrean jarri zen eta herritarrek ekarpenak egin ahal izan zituzten.

Plan estrategiko honek euskararen eta euskarak Nafarroako gizartean behar duen tokiaren gaineko paradigma berri bat proposatzen du. Planaren erdigunean, hain zuzen ere, Nafarroako herritarrak daude, gizartea bere osotasunean. Diagnostikoak erakutsi ditu zeintzuk diren herritarren premiak, euskarara iristeko zer gabezia dagoen eta nola den presazkoa hizkuntzaren egoera hainbat esparrutan hobetzea. Horri erantzunez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika eredu berri batean egituratuko da (ikus beheko grafikoa):



Euskararen I. Plan Estrategikoak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean sartutako esparru guztietan eragiten du. Hona, jarraian, hartu diren neurririk adierazgarrienetako batzuk, xeheki emanak, Gutunaren III. zatiko artikuluen arabera.

8. artikulua. Irakaskuntzan

0-3 urte bitarteko haurren etapan, Nafarroako Gobernuak haur eskoletan (zazpi guztira, komunitate osoan) ez zen euskara komunikazio-hizkuntza moduan duen plazarik eskaintzen 2016ra arte. 2017-2018 ikasturtean, haietako bitan hasi ziren euskarazko lerroak eskaintzen eta gaur egun ere horrela segitzen dute.

3-6 urte bitarteko Haur Hezkuntzari dagokionez, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzen duen **4/2015 FORU LEGEA** onestearekin batera, euskarazko irakaskuntza (D eredua) arautu zen eremu ez-euskaldunean. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuarekin eta Euskarabidearekin elkarlanean, informazio kanpainak egin ditu, eremu ez-euskaldunean bereziki eraginez.

Neurri horien inpaktu sozialari dagokionez:

- Euskarazko irakaskuntza-lerroak ireki dira zenbait ikastetxe publikotan, zehazki herri hauetan daudenetan: 2015ean, Lezaunen, Abartzuzan eta Zudairin; 2016an, Caparroson, Tafallan eta Lodosan; 2017an, Antzinen, Erriberrin eta Allon; eta, 2018an, Azkoienen eta Barasoainen.
- Euskaraz (D ereduan) eskolatutako 3tik 12 urte bitarteko nafar ikasleen ehuneko zertxobait handitu da: 2016-2017 ikasturtean 16.689 haur ziren (% 27,47) eta 2017-2018 ikasturtean, berriz, 16.864 izan dira (% 27,48).

Lanbide Heziketari dagokionez, azken bi ikasturteetan maila horretako irakaskuntza- eskaintza handitu da. **Goi mailako** zikloetan, Elizondoko Ikastetxe Bateratu Politeknikoak “Ostatu turistikoen kudeaketa” izeneko euskarazko ziklo bat du eta, era berean, “Automatizazioa eta robotika industrial” zikloa euskaraz eskainiko da San Juan-Donibane II Ikastetxe Bateratu Politeknikoan. Euskarazko **erdi mailako** zikloei dagokienez, Elizondo Ikastetxe Bateratu Politeknikoak “Erizaintzako zainketa lagungarriak” eskainiko du, Basogintza II Ikastetxe Bateratuak, berriz, “Nekazaritza ekologikoa” eta Donapea Ikastetxe Bateratu Politeknikoak “Ibilgailu automobilen elektromekanika”. Ziklo horiei gehitzen zaizkie gaur egun euskaraz ematen direnak.

Helduendako euskararen irakaskuntzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak euskaltegiei eta euskarazko irakaskuntza zentroei emandako dirulaguntzen deialdia 700.000 eurokoa izan zen 2017an eta 800.000 eurokoa izanen da 2018an. Gainera, 2018an, euskara ikasteko helduendako 100.000 euroko beka-deialdia sortu zen. Onuradunak 600 baino gehiago izan dira Nafarroa osoan. Neurri horien inpaktu sozialari dagokionez:

- Nafarroan euskaraz ikasten duten helduen kopurua % 4 handitu da: 5.319 ziren 2017an eta 5.543 2018an.

9. artikulua. Justizia

Agiri honetako 1. puntuan jadanik azaldutakoa, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren Hizkuntza Ekintzako Planaren gainean.

10. artikulua. Administrazioako agintariak eta zerbitzu publikoak

Berrikuntzak arauetan

9/2017 FORU LEGEA, ekainaren 27koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena (130. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2017ko uztailearen 6koa).

78/2017 FORU DEKRETUA, irailaren 6koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak, abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, aldatzen dituena (185. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2017ko irailaren 25ekoa).

103/2017 FORU DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan (231. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2017ko azaroaren 30ekoa).

5/2018 FORU DEKRETUA, otsailaren 28koa, Nafarroako Gobernuak hartua, irizpideak ezartzen dituena Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko (59. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2018ko martxoaren 23koa).

Neurri praktikoak

Nafarroako Gobernuko departamentuetako Hizkuntza Ekintzako planak prestatzea, Euskararen I. Plan Estrategikoaren (2016-2019) 3. ardatza garatuz eta azaroaren 15eko 103/2017 FORU DEKRETUA betez.

2015ean, Euskararen Plan Estrategikoa prestatzean, Nafarroako Gobernuko departamentuetako ordezkarien eta Euskarabideko teknikarien arteko batzordeak eratu ziren, eta euskara administrazioan benetan erabiltzeko ekintzak egiten hasi ziren.

Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua onetsi ondoren, departamentuetako planak prestatzeari ekin zaio, eta espero da 2019an aplikatzen hastea. Arau horretako artikuluan ezarritakoaren

arabera, ekintza planetan sartuta daude, gutxienez, departamentuetako euskararen egoeraren hasierako diagnostikoa eta lanpostuen komunikazio-beharren identifikazioa; herritarrei zerbitzua emateko unitateen lehentasunen ezarpena, euskarazko prestakuntzaren eta itzulpenaren beharren ebaluazioa, jarduketa plana, balorazio ekonomikoa eta ebaluazioa.

Hasierako egituratzerako, **lehentasunezkotzat** jo ziren sektore hauek: informazio eta erregistro puntuak, eremu euskalduneko zerbitzuak, zerbitzu zentralak (gizarte nafar osoarendakoak) eta eremu mistoan gehien erabiltzen diren zerbitzuak. Geroago, departamentu bakoitza bere jarduketa-eremuan hasi da zerbitzuen lehenespena definitzen eta zerbitzu horietan arreta euskaraz emanen dela bermatzeko beharrezkoa den ele biko plantilla erabakitzen.

Egoeraren **diagnostikoa** egiterakoan, zenbait **zailtasun** izan ditugu: ez dago funtzionarioen euskarazko ezagutzaren erregistrorik, ez da erregistratzen herritarrek zein hizkuntza erabiltzen duten administrazioari zuzentzen zaizkionean, ez dago herritarrei ematen zaizkien dokumentuen katalogorik, ez dago arretarako protokolorik, sare sozialen bidezko informazioa zentralizatu gabe dago, etab.

Horrek guztiak behartzen du **berariazko azterlanak** egitera. Esaterako, Osasun Departamentuan eremu euskalduneko osasun barrutien eremu-ikerketak bat egin da eta geroago egingen da eremu mistoan. Edo berariazko inkesta edo formulario sektorialak (dokumentazioaren, errotulazioaren eta paisaia linguistikoaren, kontratuen, eta abarren gainean). Gaur egun horretan ari da Euskarabidea.

Plantillan euskarazko ezagutza duten langileen kopurua handitzeko neurriak hartu ditu Nafarroako Gobernuak. Neurriak hiru esparru hauetan hartu dira: lan publikoaren eskaintzak (LPE); plantillako aldaketak, euskara-ezagutzaren nahitaezkotasuna zenbait plazari ezarriz; eta langileen euskarazko prestakuntza.

Definitzen joan dira **lanpostuak** lan publikoaren eskaintzen bidez eta erretiroa hartzeagatik plaza berritze-tasaren bidez edo plazak behin-behinekoz betez. Hala, **Osasun Departamentuan** hasi da osasun-plazak hornitzen eremu euskalduneko osasun etxeei arreta egiteko eta arreta-zirkuituak ezartzeko zerbitzu zentraletan (osasun mentala, kanpoko kontsultak, larrialdiak, etab.) eta eremu mistoko osasun etxeetan hurbileko zentroetako zerbitzuak bil daitezkeenean. Era berean, berdin egin da bestelako **zerbitzu oinarrizko eta orokorretan**, hala nola informazio eta erregistro puntuetan, liburutegietan, haurtzaindegietan, enplegu bulegoetan, ogasun bulegoetan, kirol instalazioetako eta aterpetxeetako harrera-lekuetan, foruzaingoan, suhiltzaile zerbitzuetan, albaitarien ikuskapen zerbitzuetan edo basozaingoan. Hurrengo taulan ageri da Nafarroako Gobernuak 2017ko

erdialdetik gaur egun arte plantillan ezarritako **ele biko plazen gehikuntza** (plaza horietan ez daude Hezkuntza Departamentukoak):

Departamentuak	Plazak, guztira	Ele biko lanpostuak (euskara betebeharrada) 2017-07-21ean	Ele biko plazen ehunekoa , guztien artean	Ele biko lanpostuak (euskara betebeharrada) 2018-12-7an	Ele biko plazen handitzea
Nafarroako Gobernua (Lehendakaritza eta Kabinetea)	7	0	% 0,00	0	0
Kultura, Kirola eta Gazteria	373	0	% 0,00	11	11
Eskubide Sozialak	1.076	5	% 0,46	17	12
Garapen Ekonomikoa	362	0	% 0,00	0	0
Ogasuna eta Finantza Politika	460	0	% 0,00	4	4
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	2.769	17	% 0,61	42	25
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	163	61	% 37,42	68	7
Osasuna	11.233	68	% 0,61	135	67
Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioa	587	2	% 0,34	10	8
Guztira	17.030	153	% 0,90	287 (% 1,69)	+ 134

Hurrengo taulan bildu dira azken lanpostu eskaintza publikoetan sartuta dauden plazak eta zenbatean (eta zein ehunekotan) eskatzen den euskaraz jakitea:

Lan publikoaren eskaintza (LPE)	Plazak, guztira	Ele biko lanpostuak (euskara betebeharrada)	Ele biko plazen ehunekoa, guztien artean
2017ko LPEa	248	13	% 5,24
LPEa: berritze-tasa	982	69	% 7,03
LPEa: egonkortzea.	385	55	% 14,29
Guztira	1.615	137	% 8,48

Bestalde, neurriak hartu dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanpostuetan sartu eta betetzean **euskara merezimendu moduan baloratzera**koan. 103/2017 FORU DEKRETUA onetsi arte, ingelesa, frantsesa edo alemana moduko atzerriko hizkuntzen ezagutza Nafarroa osoko merezimendu-faseetan baloratzen zen eta, aldi berean, euskara, Nafarroako berezko hizkuntza, ezin zen eremu ez-euskaldunean baloratu. Egoera paradoxikoa zen. 2017tik hasita, euskara ere eremu ez-euskaldunean baloratzeko aukera dago, Euskarabidearen alde aurreko txostenaren ondoren.

Nafarroako Gobernuak langileak euskaraz trebatzeko **prestakuntzari** dagokionez, euskaraz ikasteko urteko ikastaroek gainera, Kiroleko, Enpleguko eta Kulturako zuzendaritza nagusietako langileendako berariazko ikastaroak egin dira. 2017-2018 ikasturtean 1.100 langilek parte hartu dute prestakuntza-ikastaroetan.

Nafarroako Gobernuak Administrazioaren hizkuntza plangintzan lan egiteaz gainera, Euskarabideak **aholkularitza-lana** egin du **Nafarroako beste administrazio publiko batzuekin**: aholkua eman zaie toki entitateei plantilla organikoen eta beren lanpostuetako hizkuntza-eskakizunen gainean (hizkuntza plangintzaren arloko aholkuak eman zaizkio, besteak beste, Iruñerriko Mankomuniteari, zeinak zerbitzua ematen baitio nafarren erdiari baino gehiagori) eta, orobat, Nafarroako Parlamentuari, erakunde horretan hizkuntza planak prestatu eta abia ditzaten.

Udal esparruan euskara sustatzeko Nafarroako toki entitateei laguntza emateko urteko deialdien bidez, Euskarabideak **udaletako lau euskara zerbitzu berri** sortzea bultzatu du eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean: Izarbeibarko Mankomunitatea, Irantzuko Mankomunitatea, Noain Elortzibarko Udala eta Lizoainibar-Arriasgoitiko Udala. Euskara zerbitzu horiek dira herrietan euskararen hizkuntza plangintzaz eta sustapenez arduratzen diren unitate administratiboak.

11. artikulua. Hedabideak

Euskarabideak urtero euskara erabiltzen duten komunikabideendako dirulaguntza-deialdiak egiten ditu. 2017ko deialdia 580.000 eurokoa izan zen eta 2018koa 650.000 eurokoa.

2016an lizentzia eman zitzaion Iruñerrian osorik euskaraz emititzen duen irrati bati. Era berean, zenbait urrats egin dira **Euskal Autonomia Erkidegoko euskarazko telebista publikoa (ETB1 - kanal jeneralista) eta ETB3 (haurrendako kanal tematikoa)** hartzeko 2018ko irailaren 6tik aurrera. Gainera, Euskadiren eta Nafarroaren arteko Lankidetzarako Protokolo Nagusia 2016ko maiatzean sinatu zen. Sinaduraren ondotik normalizatu da TDT

bidez ETB1en hartzea Nafarroa osoan eta ETB3rena Iruñerrian (Iruñerria eremu mistoan dago, nafarren erdia baino gehiago bizi den eremuan). Gogora ekarri behar da Nafarroak ez duela irrati-telebista publikorik.

2018an, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskararen erabilera sustatzeko 40.000 euroko dirulaguntza-deialdiari esker. Deialdi horri esker, diruz lagundu da Nafarroan *Ttap* proiektua. Euskarazko komunikabide digital bat da, multimedia eta telefono mugikorretatik bereziki sartzeko prestatua, gaur egungo kontsumo-joerekin bat datorrena. Hartzaileak euskaldunak dira, oro har, eta, bereziki, gazteak, euskaldunak, gaurkotasuneko edukiak telefono bidez euskaraz jaso nahi dituzten natibo digitalak.

12. artikulua. Kultura jarduerak eta baliabideak

Euskara sustatzeko partida ekonomikoak handitu dira. Aurrekontua handitu da, bereziki, helduendako euskara ikasteko eta zernahi esparru sozialetan erabiltzeko sustapen deialdietan.

2017ko dirulaguntzak: ondoko deialdiok sortu dira edo diru-kopurua handitu zaie deialdi hauei:

- **Toki entitateei** udal esparruan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak: 650.000 euro.
- **Irabazi asmorik gabeko elkarteei** 250.000 euroko dirulaguntzak.

2018 dirulaguntzak: 2017koez gainera (diru-kopurua zertxobait handituz), bederatzire berri sortu dira:

- **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza-deialdia:** 40.000 euro.

Era berean, 2018an, **toponimiaren ikerketa** sustatu da, toponimia ikertzeko lanen lehiaketa bidez: 15.000 euro.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiak **“Navarrorum, euskararen gaineko dokumentuen bi mila urteko ondarea”** eta haren gaineko argitalpena prestatu zituen 2017an. Euskarabideak erakusketa horren gaineko dokumentala eta ibiltaritza diruz lagundu zituen. 2018an, Nafarroan barna ibili ondoan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko zenbait herritara eraman da erakusketa. Halaber, Navarrorum erakusketa Bruselara eraman zen, 2018ko irailean.

13. artikulua. Ekonomia eta gizarte bizitza

Euskara bizitza ekonomikoan sustatzeko bi ekimen hauek erabili dira:

- **Euskara enpresetan sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko 2017ko deialdia (berria):** 60.000 euro. 2018an 80.000 eurokoa izan da.
- Euskarak Nafarroako ekonomian duen garrantzia neurtuko duen azterketa lizitatzea 2018an: ia 60.000 euro.

Euskararen erabilera sozialari dagokionez, **euskararen erabilera** sustatzeko zenbait proiektu garatu dira; besteak beste, honako hauek:

- **Euskaraldia.** Euskararen erabilera soziala aktibatzeneko programa hau 2018an egin zen, Nafarroako Gobernuaren eta Topagunearen (Euskarazko Elkarten Federazioa) lankidetzaz bidez. Lankidetzaz hitzarmena egin zen eta 100.000 euroko laguntza izan du. Programa hau aldi berean egin da euskararen lurralde guztietan eta izena eman dute 220.000 parte-hartzailek baino gehiagok (horietatik 22.000ren bat dira Nafarroakoak).
- **Haurren erabilera sustatzeko materialak, hezitzaileek, monitoreek, entrenatzaileek eta antzekoek** erabiltzeko (*Hau jolasa baino gehiago da*) izeneko gida eta euskararen erabilera sustatzeko estrategietan trebatzeko saioak 2017an eta 2018an.
- “Sarean euskaraz” **kultura digitalerako jardunaldia.** 2017an eta 2018an; bereziki gazteendako bada ere, normahi joan daiteke zenbait saiotara.
- **Euskara kirolean.** Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin batera 2017tik hasita gauzatzen ari den lan-ildoak. Horren barnean antolatu dira kirolaren eta euskararen gaineko jardunaldi monografikoak (2017an eta 2018an) eta Nafarroako kirolean euskararen egoeraren gaineko azterlana (2018an). Era berean, Euskarabidea lankidetzan ari da 2016tik hasita Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin, Nafarroako kirol federazioekin lanean ari diren euskarazko teknikarien lana finantzatzeko.
- **Euskarazko antzerkiaren eskaintza,** Nafarroako toki entitateetan. 2017an, Euskarabideak “Ane eta ohe hegalaria” ikuskizuna lizitazio publikoaren bidez ekoitzi zuen. Ikuskizun hori Nafarroako euskarazko haur folklorean oinarrituta dago eta sei herritan eman zen. 2018an, Nafarroako 10 herritan eman zen ikuskizuna.
- Honako hauen sustapena mezenasgoen bidez: Ikergazte (**ikertzaile gazte euskaldunen topaketa**) eta **haurrendako euskarazko produktuak** ezagutzera emateko Eguberrietako kanpaina.

Sustapenari esker, euskararen egoeran hobekuntza objektibarrak gertatu dira. Hala aditzera ematen dute Euskarabideak **euskararen ezagutzaren eta erabilera sozialaren gainean dituen adierazleek:**

- Euskaraz hitz egiten duten 16 urteko edo hortik gorako nafarrak gehiago dira. 2011n 63.000 ziren (% 11,7) eta 2016an ia 69.000 (% 12,9) (*VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*).
- Euskaraz zertxobait dakiten 16 urteko edo hortik gorako nafarrak gehiago dira. 2011n 40.000 ziren (% 7,5) eta 2016an 55.000 baino gehiago (% 10,3) (*VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*).
- Euskara modu intentsiboan edo egunero erabiltzen duten 16 urteko edo gehiagoko nafarren ehunekoa handitu da. 2011n % 5,5 izatetik 2016an % 6,6 izatera pasatu da. Gehikuntza hori zertxobait handiagoa da gazteenen artean, hots, 16tik 24 urtekoen artean. 2011n % 7,3 ziren eta 2016an % 7,5 (*VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*).
- Ehuneko bat igo da euskara kalean erabiltzen dutenen kopurua: 2011n % 5,7koa zen eta 2016an % 6,7 (*Hizkuntzen kale-erabileraren neurketa. Euskal Herria, 2016*).

14. artikulua. Mugaz gaindiko trukeak

2017-07-03. **Euskara sustatzeko mugaz gaindiko lankidetzarako berariazko hitzarmena**, Nafarroako Gobernuaren (Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua), Eusko Jaurlaritzaren (Kultura eta Hizkuntza Politikarako Saila) eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean sinatua. Jarduketak honako esparru hauetan egin nahi dira: hezkuntza, helduen euskarazko prestakuntza eta ikaskuntza, euskararen ezagutza egiaztatzea, euskararen erabilera sustatzea (aisialdian eta astialdian, ingurune digitaletan, esparru sozioekonomikoan), hizkuntzaren eta haren sutapenaren aldeko sentsibilizazioa, ikerketa soziolinguistikoak eta lankidetzak Europako esparruan.

Mugaz gaindiko trukeen artean, hiru proiektu hauek bereziki aipatu beharrekoak dira:

- **Eskola Futura.** Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasle Eskolako euskarazko titulazioetan dauden ikasleen prestakuntzarako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Akitania Berriko unibertsitateekin elkarlanean. Proiektu honen bitartez ikasleei proposatzen zaie irakaskuntza-lehiaketetan sartzeko prestakuntza aukera izatea frantsesa/euskara ele biko eskoletan.
- **Euskaraldia:** euskararen erabilera soziala aktibatzeke programa, zeinetan parte hartu duten 220.000 lagunek baino gehiagok Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian.

- **Euskarabentura:** hiru lurralde horietako gazteendako programa.

3. Alderdi orokorrak

- **Hizkuntza zonifikazioa eta haren arazoak.** Nafarroako hizkuntza zonifikazioa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 FORU LEGEAREN 5. artikuluan ezarritakoa, 2010ean, 2015ean eta 2017an aldatu da edukian eta eremuen konfigurazioan. 2015ean, otsailaren 24ko 4/2015 FORU LEGEAK eremu ez-euskaldunera hedatu zuen eremu mistorako hezkuntzaren gaian aurreikusitakoa. 2017an, ekainaren 27ko 9/2017 FORU LEGEAREN bidez, eremu ez-euskaldunetan zeuden 44 udalerrri eremu mistora pasatu ziren eta eremu mistoko udalerrri bat eremu euskaldunera. Toki entitate horiek Nafarroako Parlamentuari eskatu zioten zonifikazioa berrikustea, aldeztatik osoko bilkuretan erabakiak hartu ondoren. Aldaketa hau udalerrrien egoera soziolinguistikoaren bilakaeran oinarritzen da.

Nafarroako hizkuntza zonifikazioaren ondorio politiko eta sozialari dagokionez, lege horretan onartutako hizkuntza eskubideen gaia behin eta berriz eztabaidagai da gizartean eta politikarien artean. Horren erakusgarri da Nafarroako hizkuntza zonifikazioa gaindituko duen hizkuntza legeria berria behar izatea. Hartara, gai hau eztabaidagai da Nafarroako Parlamentuan, herritarren ordezkartzaren plaza nagusian. Izan ere, 2018an abian jarri da batzorde berezi bat, oraingo hizkuntza zonifikazioa gaindituko duen Euskararen Foru Lege berri bat prestatzeko-edo.

Hizkuntza politikaren kudeaketari eta Administrazioari dagokionez, zonifikazioa zentzurik gabeko murrizketa bihurtu da administrazio publikoetan, kontuan izan behar baita administrazio horiek gero eta gehiago zerbitzuak *leihatila digitalen* bidez ematen baitituzte eta herritarrak nonahitik sartzen baitira horietan, edozein izanik ere haien bizitokia. Gainera, Nafarroan ipar eremura mugatutako euskararen ofizialtasuna ez da benetako koofizialtasun moduan hartzen, ezta Estatu Administrazioaren aldetik ere. Hori hala izanik, ez zaizkio Nafarroari aplikatzen hizkuntza koofizialak erabiltzeko neurriak, ele biko beste lurralde batzuetan normaltasun osoz aplikatzen direnak, alegia. Horren adibidea da gorago ere aipatu den nortasun-agiri nazionala ele bitan ematea.

- **Hizkuntza politikaren finantzaketa publikoa hobetzea Nafarroan.** Aurreko txostenean, Adituen Batzordeak ohartarazi zuen Euskarabideko aurrekontu globala asko murriztu zela, eta horrek ondorio negatiboa izanen zuela euskara babestu eta sustatzerakoan. Estatuak igorritako txostenean adierazten da Euskarabideko aurrekontua 2014. urtean 2.138.251 euro izatetik (Nafarroako Gobernuaren aurrekontu osoaren % 0,06) 2017an 6.224.644 euro izatera iragan dela (Nafarroako Gobernuaren aurrekontu osoaren % 0,15). 2018an, Euskarabideko aurrekontua 6.993.445 eurokoa izan da (Nafarroako Gobernuaren aurrekontu osoaren % 0,17).

- **Helduei euskara irakasteari** dagokionez, ikastaroak ematen dituzten entitateei laguntzak handitzeaz eta euskara helduak direnean ikasten dutenei beka emateaz gainera, herritar guztiek euskara ezagutzeko duten eskubidea bermatzeko neurriak hartzen ari dira. Eskaintzaren eta kostuen egoeraren gaineko azterlan berezia egiten ari da. Neurriak hartu nahi dira prestakuntza mota hori doakoa izateko, baldin eta baldintza ekonomiko batzuk betetzen badituzte.
- **Euskararen Nafar Kontseilua** berri da. Nafarroako Gobernuak, 2018ko martxoaren 22ko bilkuran erabaki zuen Euskararen Nafar Kontseiluko bokal berriak izendatzea. Erabaki horren ondoren, kontsulta-organo horrek 35 kide izanen ditu (lehenago, 22). Lana batzordeen bidez egiten da, eta eginkizun berriak gehitu dira, hala nola Euskararen Plan Estrategikoaren garapenaren eta betetze-mailaren gainean informatzea.
- 2017ko martxoan, Nafarroako Gobernuak eta Valentziako Generalitatea **hizkuntza politikarako lankidetzaren protokolo nagusira** bildu ziren (protokolo hori Kataluniako Generalitatak, Eusko Jaurlaritzak, Galiziako Xuntak eta Balear Uharteetako Gobernak sinatua zuten). Hartara, estreinakoz ezarri zen lankidetzaren esparrua, zeinetan parte hartzen baitute, berezko hizkuntza izateaz gainera, ofizialtasun-estatusa duten autonomia erkidego guztiek, behar diren autonomia estatutuetan ezarritako baldintzetan. Protokoloak esparru orokor bat eta metodologia bat ezartzen ditu, elkarrekiko lankidetzaren garatzeko komunikazioaren alorrean, informazioa trukatzeko bilakaera soziolinguistikoaren jarraipenerako azterlan eta ikerketen gainean, argitalpen elektronikoaren gainean, hizkuntza eskubideen esparruan emandako urratsen gainean eta hizkuntza planen ezarpenaren gainean. Terminologiaren alorrean, informazioa trukatzeko metodologiaren eta laneko prozesuaren gainean, normalizazio terminologikoko irizpideen gainean, terminologiak hedatzeko eta ezartzeko estrategien gainean eta ezarpen mailen jarraipena egiteko metodoen gainean. Estatuak eta EBko administrazioen esparruan hizkuntza ofizialen erabili eta babestearen alorrean, Estatuak eta EBk araudi ekintza eta neurriak har ditzaten sustatuz, gaztelaniaz bestelako hizkuntza ofizialen erabilera ahalbidetzeko haien erakundeetan.